



GREAT YARMOUTH - PROVISIONAL FIGURES • Portugal - Frantzia - Erresuma Batua

Marco Martins (zuzendaria, gidoilaria), Beatriz Batarda, Nuno Lopes, Kris Hitchen, Rita Cabaço, Romeu Runa (aktoreak), Ricardo Adolfo (gidoilaria), João Ribeiro (argazki zuzendaria), Filipa Reis (ekoizlea)

SERGIO BASURKO

2019ko urria, Great Yarmouth (Norfolk, Erresuma Batua). Hiru hilabete geratzen dira Brexiterako. Ehunka etorkin iristen dira Portugaldik hirira indioilar-haragiaren prozesamendurako lantegietan jardutera. Tânia da pertsonarik aproposena migratzaile portugaldar horiei lan bat eskuratzen laguntzeko, eta badaki non sartzen dituen langileak: duintasunaren galbidean jarriko dituen fabrika, lan baldintza ezin kaskarragoen lantegi eta ostatueta.

Erresuma Batuan bizi diren migrante portugaldarren inguruko filma da, eta hori lantzeko Great Yarmouth hirian bizi diren portugaldarengana gerturatu zen zuzendaria. 10.000 portugaldar inguru bizi dira hiri horretan, politika neoliberalak medio Europan metatu diren krisiengandik ihesi joandakoak. Ingelesek hartzen ez dituzten lanetan ari dira, esaterako, indioilarren hiltegia. Goiz esnatu eta berandu etxeratzen dira, hirian bizitzarik egin gabe, mamuen gisara. Amesgaizto bat bizi dute eta amesgaiztoa da pelikula bera.

Hala, Marco Martinsek ezagutu zituen egunean 16 ordu lan egiten zuten pertsonak, edo inolako babesik gabe produktu toxikoekin lan egiten

Brexitaren ondorioak



Marco Martins zuzendaria, erdian, bere aktoreekin aldarde onean.

JORGE FUEMBUENA

duten garbitzaileak. Ezagutu zituen langileetako asko eta Great Yarmouth-eko biztanle batzuk, gainera, pelikula aktore bilakatu ziren, kontakizuna errealitatera hurbilduz. Eta aktore

guztiek indioilar haragia prozesatzeko fabrika bat ezagutu zuten aldi batez, inguru horietan usaindu eta sentitu daitekeen garraztasuna lehen pertsonan bizitzeko.

Azpimarratu, filmaren argazkilaritza zoragarria dela bere zikintasunean eta Beatriz Batarda aktore protagonistaren antzezpena txapela burutik kentzeko modukoa.

Ghosts in a ghost town

Set against the background of Brexit, the Portuguese director Marco Martins has made a hard-hitting film about the squalid existence of Portuguese migrants working very long hours in filthy conditions in turkey-processing factories in the run-down coastal town of Great Yarmouth. The migrants had very little contact with the locals, they were like "ghosts in a ghost town," and the director wanted to draw attention to the fact that the lack of dignity faced by the Portuguese in the nightmarish situation that they were forced to endure was not just an English problem but that it also existed throughout Northern Europe. All the cast confessed that working on the project had been incredibly demanding, made even more challenging by having to shoot during the lockdown caused by the Covid pandemic.



20

GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA

FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS HUMAN RIGHTS FILM FESTIVAL

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN / 2023

21 - 28 apirila / abril / April

www.zinemaetagizaeskubideak.eus
www.cineyderechoshumanos.eus

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

 donostia
kultura